

ADMINISTRAZIOKO GOI MAILAKO KIDEGOKO LAN-POLTSA

HAUTAKETA-PROZESUA

Hautaketa prozesuak bi ariketa izango ditu eta biak egun berean egin ahal izango dira epaimahaiak hala erabakitzen badu.

Lehenengo ariketa.- Teorikoa, Nahitaezkoa eta bazter-izaerakoa, izangai guztientzat. Erantsitako gai zerrendari buruzkoa. Aukera anitzeko galdera-sorta idatziz erantzun beharko da, epaimahaiak ezarritako denboran. Gehienez **10 puntu** lortu ahal izango dira.

Ariketa zuzentzerakoan, zuzen erantzundako galdera-kopuruari akatsen herena kenduko zaio ($E = Z - A/3$). Erantzun gabeko galderak eta erantzun bikoitza dutenak ez dute zigorrik izango.

Epaimahaiak, ariketa-egileen izenak jakin aurretik zehaztuko du proba gainditzeko gutxienez lortu beharreko puntuazioa.

Bigarren ariketa.- Psikoteknikoa. Nahitaezkoa eta ez baztertzailea. Hautagaiak bete beharreko lanpostuen profilari nola egokitzen zaizkion ebaluatza bideraturiko proba psikoteknikoa egitea izango da. Ariketa hau, gehienez ere, **10 puntu** balioetsiko da.

Bigarren ariketa, lehenengoa gainditzen duten izangaiei kalifikatuko zaie soilik.

EUSKARA

EZ DA EUSKARAREN EZAGUERA FROGARIK IZANGO.

Euskararen ezagutza eskabidean adierazi behar da.

Honela baloratuko da:

- 1HEri puntu bat dagokio.
- 2HEri bi puntu dagozkio.
- 3HEri hiru puntu dagozkio.
- 4HEri lau puntu dagozkio.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko hizkuntza-eskakizunen erregistroan izena emanda dauden hizkuntza-eskakizunen titularrek ez dute agirien bidez egiaztatu beharko.

IVAPekoak ez diren euskara agiriak dituztenek eskabidean adierazi behar dute zein agiriren jabe diren eta berariazko baimena eman Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari dagozkion erregistroetan sartzeko, egindako alegazioaren zehaztasuna egiaztatu ahal izateko.

Berariazko baimena eman ezean, ariketa teoriko-praktikoaren dataren aurretik, alegaturiko tituluaren edo egiaztagiaren jabe dela kreditatu beharko du izangaia.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Hizkuntza Eskakizunen ziurtagiri eta tituluen baliokideak ondoko arauetan zehazten dira: 263/1998 DEKRETUA, urriaren 6koa (urriaren 3ko EHAA), Euskararen Gaitasun Agiriaren eta

irakaspostuetarako Hizkuntza Eskakizunen baliokidetzak finkatu, eguneratu eta berresten dituen eta 48/2009 DEKRETUA otsailaren 24koa, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzen dituen dekretua aldarazten duena (Ikusi baliokidetzak I Eranskinean)

Hizkuntza Eskakizunak akreditatzeko modua:

- a) IVAPek emandako hizkuntza eskakizunen bat edo honen baliokidea den edozein egiaztagiriren jabeek. Kasu honetan, ondoren adierazten den bezala egiaztatuko da hizkuntza eskakizuna:

IVAPek, HABEk, Osakidetzak edo Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak emandako titulu edo egiaztagiri baten jabe direnek aplikazioan bertan egiaztatu ahal izango dute jabetza hori. Horretarako bere titulua online egiaztatu beharko dute. Sistemak dagokion erregistroan jasotako informazioa egiaztatuko du eta eskaerari gehituko dio.

Aurreko atalean aipatu ez den titulu edo egiaztagiria dutenek, online egiaztapena egin ez dutenek edo titulua geroago lortzen dutenek, alegatutako agiriaren kopia ekarri beharko dute bigarren ariketa egiten den eguna baino lehenago..

- b) Hizkuntza eskakizuneko azterketa egitetik salbuetsita daudenek, 47/2012 Dekretuaren arabera, ikasketak, osorik edo zati batean, euskaraz egin dituztelako. Izangai hauek hura alegatuko beharko dute eskabidean, eta bigarren ariketa egiten den eguna baino lehenago ekarri behar dute egiaztagiriaren kopia, ikasketak amaitu dituzten ikastetxeak edo unibertsitateak emana.

I Eranskinean zerrendatzen dira HEen baliokide diren titulu eta egiaztagiriak eta Hizkuntza Eskakizuneko azterketa egitetik salbuesteko baldintzak.

Derrigorrezko ariketak gainditzten dituzten izangaiek ekarri beharko dute hautaketa prozesuan parte hartzeko bidea ematen duen titulu akademikoaren kopia digitalizatua (aurreko eta atzeko orrialdeak). Dokumentua izangai bakoitzak jarri beharko du aplikazio informatikoan, epaimahaiak ezartzen duen epean.

- Titulu akademikoaz gain, ondoko agiriekin ere balio dute:
- Titulu ofizial bati lotutako ikasketen ziurtagiria, titulu hori eskuratzeko dagozkion tasak ordaindu izana ere egiaztatzen badu.
- Tituluaren ordezkio ziurtagiriak edo ziurtagiri osagarriak, indarrean dauden arauak ezarritako ereduarekin bat badatoz.
- Titulua eskuratzeko tasa ordaindu izana egiaztatzen duen agiria edo erreziboa.

BERDINKETAK EBAZTEKO IRIZPIDEAK

Epaimahaiak, berdinketak hausteko ondoko irizpideak ezarri ditu:

1. Puntuaziorik altuena lehenengo ariketan
2. Erantzun zuzen gehien lehenengo ariketan.
3. Hurrenkera alfabetikoa. Pertsonal zuzendariaren 2016ko martxoaren 23ko ebazpenaren arabera "O" hizkia erabiliko da erreferentzia moduan.

Berdinketak erabakitzeke ez da aplikatuko Emakume eta Gizoenn berdintasunerako 4/2005 Legeko 20.4^a) artikulua xedatutakoa, Kidego honetan emakumearen presentzia %40 baino handiagoa delako.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko urtarrilak 20an

Ana Altuna Riaño
Epaimahaiaren idazkaria